BIZITEGI ERAIKINA — URBIETA 59

D MAILA







Egilea eta data: Manuel Echave; 1906

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, jatorriz behe oina eta bost goi oin dituena, gehi 1935eko jasodura bat zati batean mantsardatua. Harlanduzko fatxada, silarrixkaz konbinatua. Aluminiozko begiratokia eskuinaldeko baoan atariaren parean (1913an eraikitako zurezkoa ordezkatzen duena). Behe oina 1924an aldatu zuten (bertako baoen eta estalduraren konfigurazioa). Proiektu komuna Urbieta 57rekin.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodura (6. goi oina, mantsardatua).
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko eta silarrixkako elementuak; behe oineko estaldura.
C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.